

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Tradizio herrikoiak berreskuratzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdiaren laburpena

Alkatearen 2022ko otsailaren 17ko Ebazpena, tradizio herrikoiak berreskuratzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen 2022ko deialdia egiten duena, norgehiagoka bidez.

DDBN(Identif.): 611688

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/611688>).

(www.infosubvenciones.es).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza honen xede diren jardueretako edozein egiten duten udalerriko elkarteak eta kontzejua izango dira onuradunak.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea da udalerriko elkarteei eta kontzejuei laguntzen dieten dirulaguntzen kontsezioa arautzea, ahazten ari diren herri tradizioak (hala nola "Santa Agata", "Lardero osteguna", "Jaiotza bizidunak", "Olentzero eta Mari Domingi", "Erre Pui Erre" eta "Erregeen desfilea") berreskuratzeko jarduerak antola ditzaten.

Gastu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

Santa Agata, Lardero osteguna eta Erre Pui Erre: joaten direnei txokolatea, salda eta gaztainak eskaintzeko osagaiak.

Olentzero eta Erregeen desfileak: jantzien alokairua, antzezpenerako beharrezkoak diren elementuak, joaten direnei txokolatea, salda, gaztainak eta karameluak eskaintzeko osagaiak.

Jaiotza bizidunak: jantzetan egindako gastuak (oihalak eskuratzea, jantziak egitea, alokatzea), dekoratuak eraikitze materialak eta antzetzeko behar diren elementuak.

Deialdi honen xedearekin bat datozen eta osoko bilkurak onar ditzan aurkezten diren beste proposamen batzuk: jarduera motaren arabera baloratuko da, ahal den neurrian aurreko atalako edozeinekin parekatuz.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran aldatu eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Aurreikusitako gastuaren ehuneko 90erainoko dirulaguntzak eman ahal izango dira, muga hauekin:

Santa Agata, Lardero Osteguna, Erre Pui Erre: 50,00 euro.

Olentzero eta Mari Domingi eta Erregeen desfilea: 300,00 euro.

Jaiotza bizidunak: 1.000,00 euro.

Deialdi honen xedearekin bat datozen beste proposamen batzuk, Udalbatzak onetsiak: 50,00 euro.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien I. eranskinean ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2022ko azaroaren 30a izango da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak:

Egin nahi den jardueraren proiektua edo memoria, sinatuta.

Jarduerarako aurreikusitako aurrekontua.

Lortu ahal diren beste dirulaguntza batzuen zerrenda.

Dirulaguntza jarduera egin ostean eta elkarteak edo kontzejuak emandako dirulaguntza ordaintzeko eskaria aurkeztu eta gero ordainduko da.

Ordaintzeko eskaera udalak onartutako ereduan egingo da (II. eranskina) eta harekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Egindako jardueraren memoria, arduradunak izenpetuta. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: jarduera, emandako dirulaguntza, egin den eguna eta parte hartzaile eta onuradunen kopurua, desberdinak badira.

Lortutako beste dirulaguntza batzuen ebazpena.

Egindako jardueraren argazkiak edo grabazioak.

Jardueran egindako gastuen eta diru sarreraren zerrenda, arduradunak izenpetuta.

Onuradunaren izenean jaulkitako jatorrizko fakturak, egindako gastuenak; emandako dirulaguntzaren zenbateko bera edo handiagoa eduki behar dute eta argi eta garbi jaso beharko dute zein kontzepturenak diren, bai eta kasuan kasuko BEZa eta haien ordainagiriak ere.

Dura, 2022ko otsailaren 17a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE